

Hezkuntza-proiektu integratzaile bat sortu da Donostian

## Santa Teresa Ikastetxeak, Larramendi Ikastetxeak eta Jesuitinas Donostia ikastetxeak aliantza bat sinatu dute elkarrekin hezkuntza eredu erreferentea eraikitzeko

*Donostian, 2023ko maiatzaren 5ean*

Hainbat urte elkarrekin lan egin ondoren eraiki den proiektu berria komunikatzeko momentua iritsi da. Escuela Teresiana Fundazioak, Elikel Fundazioak eta Jesuitinas Fundazioak, Donostiako hiru ikastetxeen titularrek, gizarteari eskaintzen dioten proiektu integratzailea jakinarazi zuten atzo. Donostialdean tradizio handia duten hiru ikastetxe hauek beren indarrak batu eta datorren ikasturtetik aurrera, XXI. mendeko gizartearen hezkuntza-erronkei erantzungo dien proiektu integratzaile eta sendoa eskainiko dute.

Proiektu horrek Hezkuntza Sailaren onespena du, eta ikastetxeen (0-18 urte) egungo irakaskuntza-eskaintza sendotzea du helburu. Beste sektore batzuetako erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan, beste irakaskuntza araututa eta curriculumetik kanpoko jarduerak eskainiko ditu, hezkuntza-proiektu berriaren oinarri pedagogikoak garatuz.

Atzoko iragarkiaren ondoren, hiru erakundeek lanean jarraitzen dute Donostian erreferentzia izango den kalitateko hezkuntza proiektu bat eraikitzeko. Eskola familiarra den eredu baten alde egiten dute apostu, non ikasle, familia eta irakasleen arteko erlazio positibo eta konstruktiboak dira, pertsonak errepikaezinak direla sinetsiz, komunitatean garatzen direla, pertsona gogoetatsu direnak, **bizitza osoan** ikasteko prest eta aldatzen ari den munduarekiko konpromiisorako irekiak daudenak.

Aliantza hau datorren ikasturtean, 2023-24ean, gauzatuko da, non hiru ikastetxeetako 0, 1, 2 eta 3 urteko ikasle guztiak momentu honetan Santa Teresa Ikastetxeetako diren instalazioetan egongo diren. Hurrengo ikasturteetan beste urrats batzuk emango dira Donostian proiektu berri honetan bat egiteko.

Modu honetan, familiek ikastetxe bakoitzean jarri duten konfiantzari erantzuten zaio, hezkuntza-proiektu berria sendoa eta indartsu sortuz.

## Hiru ikastetxeei buruzko informazioa

### Larramendi Ikastetxea:

Ikastetxe honen historia 1968 arte Saturraranen zegoen Seminarioaren historiari lotuta dago. Urte horretan bertan Donostiara trasladatu zen eta Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe bihurtu, Manuel de Larramendi izenarekin. 1982an San Sebastián Martiri ikastetxearekin bat egin zuen, eta ikastetxe mistoa bihurtu zen. Urte batzuk geroago, ikastetxe itunduen sarean sartu zen, eta, pixkanaka, hezkuntza-eskaintza zabaldu egin zen eta 2016an 0 urteko gela irekiz.

Azken ikasturteetan, lan, hausnarketa eta ahalegin handia egin ondoren, eta hainbat hezkuntza-erakunderekin lankidetzan, aldaketa pedagogikoa egin du, eta "Larramendi Bidea" eredu abian jarri.

Ikastetxea Elikel Fundazioarena da (Donostiako Elizbarrutia)

### Santa Teresa Ikastetxea:

Santa Teresa de Jesusen Lagundiak Teresiako Gros auzoan inauguratu zuen lehen ikastetxea 1929an. 1968an, Ibaetara joan zen eta gaur egun, beste 21 ikastetxerekin batera, Escuela Teresiana Fundaziokoa da.

Ikastetxe itundua da, eta irakaskuntza kristaua eta kalitatezkoa eskaintzen du, Enrique de Ossó fundatzailearen printzipio pedagogikoetan oinarritua. Santa Teresan inspiratu zen, eta 0 urtetik Batxilergora arte hartzen du, horien artean Batxilergo duala.

Donostiako unibertsitate-eremuan dago, Ibaeta auzoan, zonalde berde zabalak ditu, naturarekin erlazio pribilegiatua eskainiz.

### Jesuitinas Donostia:

Jesuitinas Donostia ikastetxea (Nuestra Señora de Aranzazu) Jesusen Alabek sortutako ikastetxea. 1925ean ireki zen lehenengo ikastetxea Gros auzoan. Aiete auzoan 1967tik dago ikastetxea eta gaur egun Jesuitinas Hezkuntza Fundazioa osatzen du beste 22 ikastetxerekin batera. Ikastetxe kristaua, haur, lehen eta bigarren hezkuntzan itundua, eleanitza eta euskal gizartean txertatua.

Ilkasleen arreta pertsonalizatua, aniztasuna osoan, eta ikasle bakoitzaren behar espezifikoak asetuz, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak bultzatzen dituen giro batean: ikasleak, hezitzaileak, familiak

Nazioarteko Batxilergoa eskaintzen duen Gipuzkoako zentro bakarra: Diploma Programa (16-18 urte) eta PEP (3-12 urte) programaren ikastetxe eskatzailea.

**GAIA:** Hezkuntza proiektu integratzaile baten aurkezpena Donostian

### HARREMANETARAKO kontaktuak:

Pablo Labandeira: 600 91 47 54 (comunicacion@jesuitinas.es)

Santa Teresa Ikastetxea: 943 21 17 64

Jesuitinas Donostia: 943 21 23 07

Larramendi Ikastetxea: 943 21 39 22